

DIRU-ITURRIAK

Bizikletaren kargagailu egokituaren diru-iturriak sortzeko modu anitzak daude.

Prezio finkoek hainbat irizpideen arabera sailkatzen dira.

Gure produktuan **bi prezio finko** hartzen ditugu kontuan, hau da, bakarrik bi prezio finko parte hartzen dute produktuaren diru-iturriak sailkatzeko:

Lehenengoa, zerrendako-prezioa da; honen bidez, produktu indibidualari (bizikletari) prezio finko bat jartzen diogu.

Hau ez da izango prezio finko bakarra, ezaugarrien arabera prezioa ere izango duelako. Prezio hau bizikletaren ezaugarrien arabera aldatzen da. Potentzia desberdineko bateriak ditugu gure kargagailuaren barruan. Alde batetik, kargatzeko bizkorragoak diren bateriak egiten ditugu, adibidez pedalei eragiteko orduan zailtasun handiagoak dituzten pertsonentzat. Beste alde batetik, pedalei eragiteko orduan errazago manejatzen diren pertsonentzat egiten ditugu potentzia gutxiagoko bateriak ere. Honek prezioak ezberdinak izatea eragiten du.



Gainera gure bateriaren ezaugarri aldakorrak ez dira bakarrik potentziari begira, ere bai biltegiari begira dira, segun zer nolako biltegiko bateria erosten duzun (3000mAh edo 5000mAh-koa) prezioak aldakorrak izango dira eta hobeto egokituko dira gure berezeroei.



Beste prezio finko mota bat bolumenaren arabera prezioa da.

Hau da, bizikleta kopuruaren arabera prezioa aldatuko da, gure produktuaren kasuan, zenbat eta bizikleta gehiago erosi, prezioa merkeagoa izango da.

Enpresaren bat bizikleta bat baino gehiago erosten badigu, bizikleta hoienez prezioa egokituko dugu merkeagoa izateko.



Hurrengo prezio finko motak prezio aldakorak dira. Hainbat irizpide erabili ahal dira gure produktua sailkatzeko. Horietako bat denbora errealeko merkatua da. Irizpide honek argitzen du gure produktuaren prezioa eskaintza eta eskaeraren legearen arabera ezartzen dela. Adibidez, koarentenan, bizikleten eskaria pillo bat igo zen, eta horrekin batera haien prezioa igo zen.



Enpresekin edo marka desberdinekin kolaborazioak egiteko, negoziazio edo tratua eraberrera ezartzen da gure produktuaren prezioa. Hau da, gure bizikleta existitzen den marka bat izatea nahi badugu, marka horrekin adostu behar izango dugu zein izango den prezioa gure bizikleta marka jakin hori eramateko.

